


BALOREZKO PROPOSAMENA

Atal honekin, gure proiektuak nola funtzionatzen duen azalduko dugu. Gure helburua autismoari buruz kontzientziatzea dela kontuan izanik, honen sintomak oinarri dituen jolasetan oinarrituko gara. Joko hauen helburua autismoa duten pertsonen azalean jartzea da.

Badakigu hainbat erakunde lantzen dutela autismoa, baina erakunde horietatik desberdin egiten gaituena gure azaltzeko modua da, hau da, autismoaren sintomak erakusteko modua. Erakundeak aztertu ondoren konturatu gara gehienetan hitzaldia edota elkarrizketak lantzen dituztela, eta, iruditu zaigu, ume batentzat autismoa ulertzeko hitzaldiak ez direla modu erakargarrienak. Horregatik, guk umeei autismoa modu dibertigarri batean ulertaraztea erabaki dugu, hala, beraien atentzioa lortu, eta gai honetaz interesa piztuko dugu. Gainera, ziurrenik, umeei joko hauek interesgarriak egiten bazaizkie interes handiagoa azalduko dute eta errazagoa izango da kontzientziatzea.



Gehienetan ez gara kontziente izaten gertuko pertsonak jasaten ari diren egoeraz, askok barrurako gordetzen baitute eta arazoak izaten dituzte adierazterako orduan. Sentimendu hau bideratzeko, jokoen bidez egitea errazagoa eta dibertigarriagoa izango dela iruditzen zaigu, gazteei eta nerabeei ulertarazteko eta egoera hau normalizatzeko.

Autismoa duten pertsonak hainbat motatako sintomak pairatzen dituzte, ausentzia emozionala, komunikatzeko arazoak, bakardadea, begietara begiratzeko zailtasuna, zaratekiko beldurra... Gure ustez, sintomak hauek sufritu eta adieraztean arazoak izatea oso gogorra da, batez ere gazteak garenean; izan ere, ume batek lagunak izatea eta lasaitasun osoz bere arazoak komunikatzea ezinbestekoa dela iruditzen zaigu.

Gure inguruan autismoari buruz lan egiten duen elkarteak Gautena da, hauek autismoa tratatzen dute, hemen autismoa pairatzen dutenenek elkarri laguntzen diete. Guk aldiz, autismoa ulertarazi nahi diegu autismorik ez duten ume eta gazteei jokoen bidez, ulerterrazagoak izan daitezen pairatzen dituzten sintoma hauek.

Jolasez gain, Gautena elkartearekin komunikatu gara eta autismoa duten pertsonak beraien bizipenak azalduko dituzten hitzaldi eramangarri batzuk emateko prest daudela esan digute, beraz gure saioak bi egunetan zatituko dira, egun bakoitzean ordu bakarreko saioa eginez.

Hitzaldiekin abiatuz, gureak ez dira beste edozein lekuetan bezalakoak izango. Gautenatik etorriko diren boluntarioek haien esperientziak modu ulerterrazean azalduko dituzte, kontuan hartu behar baita litekeena dela gauza asko ez ulertzea oraindik umeak

direla jakinik. Hitz egiten duten bitartean, Quiz moduko galdetegi batez baliatuko gara. Galdetegi hortaz gautena arduratuko da, ez da gure gastuetan sartuko, guk egun batzuk lehenago bertan egongo den ikasle kopurua adierazi beharko diegu galdeketa denei bidaltzeko.

Lehenengo egunean jokoak egingo ditugu, eta bigarrenenean ordubeteko hitzaldia emango du Gautenako partaideak. Hitzaldiaren helburu nagusia, umeez edo entzuleek hitz egiten duen pertsonarekin konektatzea edo empatizatzea da.

Bestalde, gure lana aurkeztuko diegun taldea 20-25 pertsonakoa izango da.

Jolasak hurrengoak izango dira:

- **Tabu (15 minutu):** Hitz bat aukeratuko dugu: ikastola, musika, familia... eta aukeratutakoaren arabera, zerikusia duten hitz batzuk ezingo dira esan. Jolas honen bidez autismoa duten pertsonak hitz egiterakoan edukitzen dituzten arazoekin nola sentitzen diren erakutsi nahi dugu. Modu honetara, ikasleak, autismoa duten pertsonak komunikatzeko duten zailtasunaz jabetuko dira.
- **Zarata jasanezina (7 minutu):** Minutu batez zarata jasanezinak jarriko dizkiegu ikasleei, horrela, ikasleei autismoaren sintoma bat azalduko diegu, zaratekiko beldurra. Zarata hau jarri ondoren honen arrazoia eta azalpena emango diegu, eta denen artean komentatuko dugu. Joko honek 7 minutu iraungo ditu.
- **Gometsaren jokua (15 minutu):** Ikasle guztiei gometsa bana jarriko diegu kopetan, hauek gorriak, urdinak eta berdeak izango dira, eta taldeak egiteko esango diegu hitzik egin gabe. Jokua berezitasuna hurrengoa da: ikasle bati gometsa ezberdin bat jarriko diegu, horia. ezer esan gabe taldeak egiteko esango diegu, eta litekeena da duten gometsen arabera izatea taldeak. Kontua da, gometsa horia duen pertsona bakarrik geratuko dela, eta honek baka honek bakardadea adieraziko du besteekiko ezberdina delako. Joko honen helburua autismoa duten pertsonak baztertuak direnean nola sentitzen diren adieraztea da.
- **Obsesioa eta kontaktu bisuala (5 minutu):** Bi aldagai hauek lantzeko binaka jarriko gara eta ondokoari interesatzen zaizun gai bati buruz 10 gauza esan beharko dizkiozu, honi begiratu gabe. Autismoa duten pertsonak gai batekin obsesionatzen dira eta etengabe ari dira hortan pentsatzen. Horrez gain, ez dira beste pertsona batekin kontaktu bisuala mantentzeko gai. Joko honekin sintoma hau adierazi nahi dugu, besterik gabe.
- **Seriea (15 minutu):** "Atipiko" izeneko seriearen zati bat ikusiko dugu.

Gure azalpenak eta jolas denak euskaraz emango ditugula azpimarratu nahi dugu; izan ere, gure ama hizkuntza izanda, eta arriskuan dagoela jakinik, bultzatzea nahitaezkoa dela iruditzen zaigu.

Bukatzeko, jolas hauek egin ondoren, ondorioak aterako ditugu eta jolasak gelan komentatu.